


15. Epaimahaiari dagokio urtean zehar proiektuaren lan-segimendua egitea, horretarako jarriko den egutegia jarraituz.
16. Epaimahaiaren erabakiak (arau hauen arabera izaki) onartu beharrekoak dira, eta atzera bota ezinak, proiektu-aurrekontuaren bezala K. A. Euskal Fundazioarentzat ere.
17. Proiektuaren aurrekontuaren *eginbeharrak* izango dira:
  - Aldez aurretik erabakitako aldiaren aldiko kontu-emateak aurkeztea.
  - Onartutako lan-baldintzak betetzea eta behar denetan betearaztea.
  - Izendatutako epeetan lanaren kontu-ematea.
  - Proiektua epe jakin baten barruan burutzea.
  - Arazo berezirik sortuko balitz, Batzorde Koordinatzailearekin mintzatuz lanaren bideragarritasuna segurtatzea.
  - Proiektu-lan bukatua Batzorde Koordinatzaileari eta Epaimahai-koei aurkeztea.
18. Proiektu-aurrekontuak, Beka jaso eta hurrengo hamar egunen barruan (baina betiere 7. puntuaren esaten dena argitu ondoren), hitzarmen bat sinatuko du, horretarako K. A. Euskal Fundazioaren ordezkari izango den Batzorde Koordinatzaileko Buruarekin batera, Beka eta beroni dagozkion arauak onartuz.
19. Proiektuak eta lanak euskaraz idatziko dira, eta argitara eman ere halaxe egingo dira. Epaimahaiak horrela aholkatuko balu, euskara-zuzentzaile batek emango dio testuari gain begiratu bat.
20. Beka-ordainketak honela egingo dira:
  - Aipatutako hitzarmena sinatzean (ik. 17. puntua), % 25.
  - 2008ko otsailaren 15ean, % 25.
  - 2008ko maiatzaren 15ean, % 25.
  - Lan bukatua onartuz gero, 2008ko irailean, % 25.
21. Proiektua egin gabe geratuko balitz, edo, Epaimahaiaren eta/edo Batzorde Koordinatzailearen iritziz, egindako lanak (egitasmo bukatuak, alegia) proiektuan aurre-ikusitakoa bere izaeran edo/eta kalitatean emango ez balu, ordura arte jasotako dirua itzuli egin beharko dio proiektu-aurrekontuak K. A. Euskal Fundazioari.

*Oñati, 2007ko maiatzaren 31ean*



# Juan Zelaia Letamendi

## Musika-Beka

HIRUGARREN DEIALDIA (2007)

Proiektu aurrekontuaren epea: Abuztuak 31

Non aurkeztu: Eresbil ■ Alfonso XI, 2 ■ E-20100 Errenteria  
[www.eresbil.com](http://www.eresbil.com)

1. “Juan Zelaia Letamendi” Musika-Beka *musika-ekimenetan euskara* laguntzeko asmoarekin antolatzen da. Hortaz, Euskara eta Musika elkartuta zabaltzeko aurkeztutako proiektuei lagundu nahi die Beka-Lehiaketa honek.
2. Bi urtetik behin emango da Beka, eta Beka-Lehiaketa gisakoa izango da berori, hau da, aurkeztutako proiektuen arteko lehia irekian Epaimahaiak aukeratutakoari emango zaio Beka. 9.000 euroko dirulaguntza izango da, baina epaimahaiak egokiago baderitza, eman gabe ere gera daiteke Beka.
3. Lehiaketa honetan *normahik parte* har dezake. Proiektua nor bakarrarena nahiz talde, elkarte edo erakunderen batena izan daiteke; betiere, erantzukizun juridikorik hartu eta eskatzeko gai dena izan beharko du aurkezleak.
4. Lehiaketarako deialdia ekainean egingo da, eta urte bereko irailean emango zaio Beka Proiektu aukeratuari; ikerlana burutu edo proiektua egikaritzeko urtebeteko epea izango du bekadunak, hau da, hurrengo urteko irailean amaiera artekoa.
5. Musika-munduko edozein *eremu ezberdinetako* proiektuak aurkez daitezke Lehiaketara, baina interes berezia izan lezakete proiektu-mota batzuek, nahiz eta horietara mugatu beharrik ez dagoen:
  - Alde sozial zabala duten egitasmoek (irakaskuntzan, adibidez).
  - Euskal musika-ondarea birbalioesteko oinarritutakoak direnek.
  - Beren emaitzetan Euskal Herri osora zabal daitezkeenek.
  - Euskal Diasporarako baliagarritasun nabariagoa dutenek.
  - Hedapen-teknologia berrien bidezko proiektuek.
6. Proiektuak beste Lehiaketetara aurkeztu gabea izan behar du, eta laguntza ofizialik gabea. Era berean, irabaz-asmoko musika produkzio-etxeek ezingo dute Lehiaketa honetan parte hartu, aurre-ikusitako kasuan kasuko produkzio-galerak eta proiektuaren interes kultural berezia garbiki azaldu eta onartuta ez bada.
7. Proiektu burutuaren *emaitza argitaragarria* balitz, argitalpenak egiteko eskubidea K. A. Euskal Fundazioarena izango da, eta honek horretarako sor dezakeen bildumaren barruan edo nahiago duen bidetatik kaleratu ahal du (lehenengo edizioan, beste ordainketarik egiteke), betiere lana jaso eta urtebeteko epe-barruan. Horretarako, egileak euskarri informatikoan emango dio bere lana K. A. Euskal Fundazioari (horrelakorik ahal denetan). Lan bekadunak hurrengo argitaraldietan ere jasotako Bekaren aipamena eginez eman beharko dira argitara.
8. Aurreko puntuan adierazitakoak gogoan direla, hautatuak Bekaren onarpen-hitzarmena sinatu aurretik hitzartuko dira kasu bakoitzean proiektu burutuak sor ditzakeen jabetza-eskubideen bestelako erabilpen-moduak, K. A. Fundazioak halakorik komenigarri ikusiko balu behinik behin.
9. Aurkezleak ondoko *argibideak* eskaini beharko ditu proiektu-aurkezpena egitean:
  - Arduradun(ar)en datu pertsonalak:
    - Curriculum vitae.
    - NANeko zenbakia.
    - Harremanetarako helbidea, posta elektronikoa, telefonoa.
  - Landu nahi den proiektuaren azalpena (gehenez, 10 orrialde) egitura honen arabera:
    - Ikerlanaren izenburua.
    - Laburpena.
    - Helburu orokorra.
    - Gaiaren aurrekoak eta egungo egoera.
    - Lanaren interesa.
    - Lan egitaraua eta kronograma.
    - Metodologia.
    - Bibliografia.
10. Lehiaketarekiko ardura *Batzorde Koordinatzaile* baten esku egongo da, eta beronen izendapena Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioko Patronatuak egingo du, bere kideen artean nahiz kanpoko teknikari eta adituen artean.
11. Batzorde Koordinatzailearen egitekoa Lehiaketako erakundezko antolamendu-ardurak eramatea da, hau da, Lehiaketan parte diren erakundeek, ikertzaileen eta epaimahaiaren arteko harremanak bateratu eta elkartzeko. Ardura akademikoa izan ezik, gainerako eguneroko eginkizunak bere ardurapean izango ditu Batzorde Koordinatzaileak.
12. Halaber, Batzorde Koordinatzaileak Lehiaketa bakoitzerako eratuko du Epaimahaia, aurkeztutako Proiektuak gogoan hartuta, eta, ahal dela, kasurako egokien diren adituekin kontatuz. Mahaikide horietako norbaitek huts egingo balu, mahaiko gainerakoek izendatuko dute ordezkoa.
13. Arruntki, *Epaimahaia* lau lagunek osatuko dute, hau da, hiru epailek eta idazkari batek. Haien ahotsa eta botoa izango dute, eta idazkariak ahotsa bai baina botorik ez. Deialdi bakoitzerako izendatuko dira epaileak; idazkaria, berriz, epealdi baterako iraunkorra izan daiteke.
14. Epaimahaiko epaileen hautapena Batzorde Koordinatzaileak egingo du, eta ahal delarik, Idazkaria Koordinatzaileetako bat izango da.